

MAKE-UP MACHINE

6. BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure markarekin dugun harremana ez da salmentan amaitzen. Helburua bezeroak gustura eta konfiantzaz sentitzea da, eta horretarako esperientzia zaindua eskaintzen dugu une guztietan. Deskontuak, promozioak, oparitxoak eta arreta pertsonalizatua erabiltzen ditugu bezeroarekin harreman positibo eta iraunkorra sortzeko.

EROSKETA AURRETIK

Bezero berriak erakartzeko eta konfiantza sortzeko, promozio bereziak eskaintzen ditugu. Besteak beste, lehen erosketan %20ko deskontua, 2x1 eskaintzak produktuetan, erosketarekin opari txiki bat doan, doako bidalketa gutxieneko erosketatik gora eta "lagun bat ekarri eta deskontua lortu" bezalako ekintzak. Horrez gain, denbora mugatuko eskaintzak, bezero fidelentzako deskontu bereziak eta sare sozialetan zozketak edo kode promozionalak egiten ditugu.

EROSKETA-PROZESUAN

Erosketa unean, tratu hurbila eta pertsonalizatua eskaintzen dugu, bezeroa eroso senti dadin eta esperientzia atsegina izan dezan. Aurpegia eskaneatu ondoren, aholku pertsonalizatuak ematen ditugu, bezeroak bere azala hobeto ezagutzeko eta produktuak modu eraginkorrean erabiltzeko.

EROSKETA ONDOREN (FIDELIZAZIOA)

Erosketa egin ondoren ere harremana mantentzen dugu. Deskontu txartelak, oparitxo txikiak eta egun berezietan arreta berezia eskaintzen ditugu, bezeroa berriro etortzera motibatzeko. Bezeroekin harreman pertsonal eta jarraitua lantzen dugu, bai aurrez aurre bai kanal digitalen bidez, beti aholku pertsonalizatua eskainiz



Erosketaren aurretik

Promozio bereziak eskaintzen ditugu bezero berriak erakartzeko



Erosketa-prozesua

Tratu hurbila eta pertsonalizatua eskaintzen dugu, bezeroa gustura sent dadin eta esperientzia atsegina izan dezan



Erosketaren ondoren (fidelizazioa)

Deskontu txartelak, oparitxo txikiak eta egun berezietan arreta berezia eskaintzen ditugu, bezeroa berriro etortzera motibatzeko



Bezeroekiko erlazioa

Harreman pertsonala eta jarraitua lantzen dugu, bai aurrez aurre bai interakzio digitalen bidez, aholku pertsonalizatuak eskainiz aurpegiaren eskaneaketaren ondoren